

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

2019an Gobernuak 1,1 milioi euro emango dizkie Nafarroako telebistei beren edukiak ekoitz ditzaten

Operadorearen arabera, Navarra TV telebista autonomikoak 573.662,11 euro jasoko ditu, eta tokiko lau telebistak ere jasoko dute dirua: Xaloa TB-k, 270.000 euro; Hamaika TB-k, 181.035 euro; Iruindarra TB-k, 45.605,95 euro; eta Zona Media TV-k, berriz, 29.696,94 euro

Ostirala, 2019.eko otsailak 22

Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak ikus-entzunezkoak ekoizteko Nafarroako telebistei zuzendutako 2019ko deialdia ebatzi du eta, guztira, 1,1 milioi euro emango ditu. Honela ebatzi da deialdia: Navarra TV telebista autonomikoak 573.662,11 € jasoko ditu guztira; Iruñerako tokiko TDT lizentzien hiru titularrek ia beste milioi-erdi bat banatuko dute beren artean (alegia, 496.640,95 euro: Xaloa Telebista-k 270.000 € jasoko ditu; Hamaika Telebista-k, 181.035 €, eta Iruindarra TB-k, berriz, 45.605,95 €); eta, azkenik, Tafallarako tokiko TDT lizentzia duen titular bakarrak, Zona Media TV-k, 29.696,94 € jasoko ditu.

Bost telebista-operadore horiek 19 programa ekoizteko eta emateko jasoko dituzte laguntzak; hain zuzen ere, programak ekoizteak duen kostuaren % 50 ordaintzeko. Hortaz, guztira, 2,2 milioi euro inbertituko dira ikus-entzunezkoetan ekitaldi honetan.

Navarra TV-k, operadore autonomiko bakarrak, lau programatarako jasoko du diru-laguntza: *La muga* magazina (350.000 €); *Zona Mixta* kirol-albistegia (123.662,11 €); eta beste bi proposamen (bata, gastronomiako: *Los fogones del Reino*; eta bestea, Nafarroako jendeak eta tokiak ezagutzeko *Tiramillas*. 50.000na euro).

Tokiko operadoreei dagokienez, Xaloa Telebista-k jasoko du laguntza handiena deialdi honetan (alegia, 270.000 euro), erabat euskaraz emango den programazio baterako: Nafarroako hiriburuari buruzko magazinak, *Negudaberriaroa* eta *Udaurriaroa* (50.000na euro); *Pirinioak bi alde* telesaila (75.000 €), Nafarroako Pirinioetako eta mugaren beste aldean dauden Pirinio Atlantikoetako herriak ezagutzeko eta hurbiltzeko programa; eta ikus-entzule sektorialeko zuzendutako hiru proposamen (*Euskal City*, euskara modu atseginagoan ikasteko: 25.000 €; *Nafarroako tontorrek*, Nafarroako gailur garai eta interesgarrien bidez Nafarroako geografia eta jendeak ezagutzeko: 50.000 €; eta *Nafarrak munduan*, lanagatik edo bizipenengatik gure mugetatik harago bizitzera joaten diren nafarrak ezagutzeko programa: 20.000 €).

Iruñeko tokiko TDT mugapenetik irten gabe, tokiko beste operadore batek, Hamaika Telebista-k, 181.035 €-ko laguntza publikoa jasoko du hauek ekoizteko: memoria historikoko telesail bat, *Hezurren memoria*

(81.035 euro); Nafarroako gaurkotasun-albisteak emakumeen ikuspegitik aurkezteko proposamen bat, emakumeak protagonista dituen, *Lotsagabe* (50.000 euro); eta Nafarroako hiriburuan eta haren hiri-ingurunean bizi direnen ikuspegi ekologikoa eta baratze-aukerak aztertzen dituen programa bat, *Hiri-baratzea* (50.000 euro).

Azkenik, tokiko beste bi operadorek ere jasoko dute laguntza deialdi honetan. Hala, Iruindarra TB telebistak, Nafarroako hiriburuaren mugapeneko Abian Media, S.L.ren operadorearen marka komertziala denak, 45.605,95 euro jasoko ditu *Iruñean barna* tokiko magazina ekoizteko. Bestalde, Tafallako mugapenerako lizentzia duen Zona Media TV tokiko operadoreak 30.000 euro inguruko laguntza publikoa jasoko du bere parrillako programa hauek ekoizteko: *Este es mi oficio* (6.656,59 €), lanbide tradizionalen buruzkoa; *Objetivo comercio* (6.566,45 €), merkataritza tradizionala eta bertakoa ezagutarazten dituen; *Ocurrió en la Zona Media* (5.401,55 €), tokiko magazin bat; eta *Conocidos por conocer* (5.067,62 €), eskualdeko herritar famatuak ikus-entzuleengana hurbiltzen dituen.